IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

BALDINTZA TEKNIKO BEREZIEN AGIRIA, SAN PEDROKO JUBILATUEN ETXEKO TABERNAREN USTIAPENA PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ ETA OHIKO JARDUNBIDEZ KONTRATATZEKO

****

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE LA EXPLOTACIÓN DEL AMBIGÚ DEL HOGAR DE JUBILADOS DE SAN PEDRO POR PROCEDIMIENTO ABIERTO

****

1. KONTRATUAREN XEDEA

Baldintza-agiri hauen arabera gauzatuko den kontratuaren xedea: SAN PEDROKO JUBILATUEN ETXEKO EDARITEGIAREN USTIAPENA esleitzea.

San Pedroko jubilatuen etxeko edaritegiak funtzionamendurako beharrezkoak diren tresnak batzuk ditut, eta horien inbentarioa jasota dago baldintza tekniko berezien agiriaren I. eranskinean. Kontratista edo esleipendunari entregatzen zaizkionean dagokion akta egingo da.

Tresnen lagapena bukatzean horiek ez badatoz bat inbentarioan jasotakoekin, horien arteko aldea administrazio-baldintzen agirian adierazitako behin betiko bermearekin ordainduko da.

Edaritegi zerbitzuaren ustiapenak barne hartzen ditu lan hauek: edaritegi zerbitzua emateko instalazio eta tresnen garbiketa, eta Jubilatuen Etxearen atezaintza-zerbitzua.

Edaritegiaren ustiapena esleitzeak ez du eskubiderik ematen establezimenduari dagokionez. Establezimendutzat hartzen dira edaritegia eta instalazioak.

Jubilatuen zuzendaritza batzordeak instalazioen kontrolerako ahalmen osoa du Pasaiako Udalaren azken hitzarekin.

Edaritegiaren esleipendunek jubilatuen etxeko zuzendaritzarekin eta Pasaiako Udalarekin adostu behar dituzte edaritegiaren eta instalazioen erabilera osagarriak, jubilatuen etxearen ohiko funtzionamenduarekin zerikusirik ez dutenak.

2. ZERBITZUA EMATEKO BALDINTZA OROKORRAK

1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que en base al presente pliego se realice tendrá por objeto la adjudicación DE LA EXPLOTACIÓN DEL AMBIGÚ DEL HOGAR DE JUBILADOS DE SAN PEDRO.

El ambigú del Hogar de Jubilados de San Pedro, tiene instalados algunos útiles y enseres necesarios para el funcionamiento del ambigú, los cuales constan en el inventario que se recoge en el Anexo I del pliego de prescripciones técnicas particulares. En el momento de la entrega de aquellos al/a la contratista-adjudicatario/a se levantará el acta pertinente.

Si al finalizar la concesión los útiles y enseres existentes no coinciden con los inventariados, de la diferencia responderá la garantía definitiva a que se refiere el presente pliego de clausulas administrativas particulares.

La explotación del servicio de ambigú comporta además la limpieza de las instalaciones y enseres directamente destinados al servicio de ambigú, así como la prestación del servicio de Conserjería del Hogar del Jubilado.

La adjudicación de la explotación del ambigú no implica ningún derecho sobre el establecimiento, entendiendo éste como ambigú e instalaciones.

La junta directiva del hogar tiene plena potestad para el control de las instalaciones con la última palabra del ayuntamiento de Pasaia.

El adjudicatario del ambigú tienen la obligatoriedad de concertar junto con la directiva del hogar y el ayuntamiento de Pasaia todas las posibles utilizaciones adicionales del ambigú e instalaciones para actividades ajenas al normal funcionamiento del hogar.

2. CONDICIONES DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO

2.1. Esleipendunak Jubilatuen Etxean eman behar du zerbitzua, eta edaritegia irekita izan behar du urteko egun guztietan goizeko 10:00etatik gaueko 21:00etara, edo Jubilatuen Etxearen funtzionamendu-arauetan ezartzen diren orduetan, ondoren adierazten diren salbuespenekin.

2.1. El/la adjudicatario/ queda obligado/a a prestar su servicio en el citado Hogar de Jubilado, debiendo mantenerlo abierto al público y en disposición de prestar los servicios referidos, todos los días del año, desde las 10:00 horas de la mañana a las 21:00 horas de la noche, o durante los días y horas que en su caso se fije en las normas de funcionamiento del propio Hogar de Jubilados, con las salvedades que se señalan a continuación:

Esleipendunak urtean 15 egunetan edaritegia itxi ahal izango du opor moduan, eta egun horietan edaritegi-zerbitzua itxita egongo da.

El/la adjudicatario/a podrá cerrar el ambigú durante 15 días en concepto de vacaciones cada año, durante los cuales permanecerá cerrado el servicio de ambigú.

Esleipendunak astean egun batean edaritegia itxi ahal izango du asteko atseden egun moduan, eta egun horretan edaritegi-zerbitzua itxita egongo da.

El/la adjudicatario/a podrá cerrar un día a la semana el ambigú en concepto de descanso semanal, durante el cual permanecerá cerrado el servicio de ambigú.

Edaritegi-zerbitzua ixteko egunak, bai opor egunak eta bai asteko atseden-eguna, Jubilatuen Etxeko zuzendaritza batzordearekin adostu beharko ditu esleipendunak, Udalak gainbegiratuta. Lehen adierazitako moduan adostasunik lortzen ez badute, Udalak erabakiko du.

Tanto los días de vacaciones que permanezca cerrado el servicio de ambigú así como el día de descanso semanal, serán acordados entre la persona adjudicataria y la Junta directiva del Hogar, bajo la supervisión del Ayuntamiento. En caso de que no se llegue a un acuerdo de la forma anteriormente descrita, resolverá el Ayuntamiento.

Nolanahi ere, kontratistak bete egin beharko ditu indarrean dauden araudietan ezarritako debekuak, adingabekoei era guztietako produktuen salmentari buruzkoak.

En todo caso, el contratista deberá respetar las prohibiciones establecidas en la normativa vigente sobre venta de productos de cualquier clase a menores.

2.2. Atezaintzako eginkizunei dagokienez, lokaletarako sarbidea kontrolatuko du, horien segurtasuna zainduko du, lokalak ireki eta itxiko ditu, horietara sartzeko giltzak gordeko ditu, eta jubilatuen etxe barruko ordena eta elkarbizitza ona zainduko ditu.

2.2. Dentro de las funciones de conserjería, controlará el acceso a los locales, cuidará de la seguridad de los mismos, se ocupará de la apertura y cierre, siendo depositario/a de las llaves de acceso a ellos y respondiendo de su uso, cuidando del orden y de la buena convivencia dentro del Hogar.

2.3. Esleipendunaren kontura izango da edaritegi eta instalazioen eguneroko garbiketa.

2.3. Correrá por cuenta del/la adjudicatario/a la limpieza diaria del ambigú y las instalaciones.

Komunak eta ingurua egunero garbituko ditu.

La limpieza de los aseos y entorno se realizará todos los días de la semana.

Garbiketako produktuak eta tresnak kontratistaren kontura izango dira.

Los productos y útiles de limpieza serán por cuenta del contratista.

Gainerako instalazioen garbiketaz Udala arduratuko da.

La limpieza del resto de las instalaciones correrá a cargo del Ayuntamiento.

2.4. Ura eta elektrizitate-kontsumoaren gastua udalaren kontura izango da.

2.4. Los gastos por el consumo de agua y electricidad serán a cuenta del ayuntamiento.

2.5. Kontratistak langileak adskribatuko ditu kontratu honetan jasotako eginkizunak gauzatzeko, eta langile horiek ez dute Udalarekin inolako

2.5. El/la contratista deberá adscribir trabajadores a las funciones propias a las que se refiere el presente contrato, los trabajadores no adquirirán

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

harreman- edo mendetasun-eskubiderik eskuratuko. Langileak adskribatzean, Udalari jakinaraziko dizkio pertsonen izenak. Horiek kontratu honen esleipena arautzen duten agirietan ezarritako baldintzak bete behar dituzte, besteak beste, egiaztatu behar dute beharrezko hizkuntza-gaitasuna dutela.

ningún derecho de dependencia o relación con el Ayuntamiento, debiendo en este último caso poner en conocimiento del Ayuntamiento los nombres de las personas que habitualmente presten el servicio. Dichas personas deberán cumplir los requisitos establecidos en los pliegos que rigen la adjudicación del presente contrato. Entre otros, dichas personas que se incorporen deberán acreditar así mismo la competencia lingüística precisa.

Kontratistak behar bezalako erantzuna emango du bajak daudenean edo oporrak hartzen direnean, zerbitzua beti bermatuta gera dadin.

El contratista deberá dar debida respuesta a situaciones de baja, vacaciones etc. de manera que siempre quede cubierto el servicio.

2.7. San Pedroko jubilatuen etxeko edaritegiak funtzionamendurako beharrezkoak diren tresnak batzuk ditut, eta horien inbentarioa jasota dago baldintza tekniko berezien agiriaren I. eranskinean. Kontratista edo esleipendunari entregatzen zaizkionean dagokion akta egingo da.

2.7. El ambigú del Hogar de Jubilados de San Pedro, tiene instalados algunos útiles y enseres necesarios para el normal funcionamiento del ambigú, los cuales constan en el inventario que se recoge en el Anexo I del pliego de prescripciones técnicas particulares. En el momento de la entrega de aquellos al/a la contratista-adjudicatario/a se levantará el acta pertinente.

Tresnen lagapena bukatzean horiek ez badatoz bat inbentarioan jasotakoekin, horien arteko aldea administrazio-baldintzen agirian adierazitako behin betiko bermearekin ordainduko da.

Si al finalizar la concesión los útiles y enseres existentes no coinciden con los inventariados, de la diferencia responderá la garantía definitiva a que se refiere el pliego de clausulas administrativas particulares.

2.8. Esleipendunak dagokion hilabeteko kanona ordaindu beharko du.

2.8. El adjudicatario deberá abonar el cánon mensual correspondiente.

Pasaiako Udalak ez dio kontratistari preziorik ordainduko, eta kontratistak kontratuaren egikaritzetik eratorritako saldoekin finantzatuko du zerbitzua.

El Ayuntamiento de Pasaia no abonará ningún precio al contratista, que se financiará de los saldos derivados de la ejecución del contrato.

Nahitaezkoa izango da janari-edarien prezioak agerian jartzea. 2025. urteko prezioak baldintza tekniko berezien agiriaren II. eranskinean jasotzen dira. Hurrengo urteetarako prezioak ere Pasaiako jubilatuen etxeetako zuzendaritza guztien artean adostuko dira, eta esleipendunek ezingo dituzte nahierara aldatu. Urte bakoitzari dagozkion prezioak urteko lehenengo hiruhilekoan ezarriko dira. Esleipendunak aurreko urteko prezioak erabiliko ditu, berriak onartu artean.

Será obligatorio exponer en lugar visible y claro los precios de las consumiciones. Los precios correspondientes a 2025 se establecen en el Anexo II del pliego de prescripciones técnicas particulares. Los precios para años sucesivos serán acordados asimismo por el conjunto de las directivas de los hogares de jubilados/as de Pasaia y no podrán ser modificados por las personas adjudicatarias. Los precios correspondientes a cada año se establecerán en el primer trimestre de cada año. El adjudicatario deberá aplicar los precios correspondientes al año anterior hasta en tanto en cuanto no se aprueben los nuevos precios.

Baldintza tekniko berezien agiriko II. eranskinean aipatzen ez diren produktuen prezioak kontratistak ezarriko ditu nahi duen moduan.

En lo que respecta a los precios de los productos no mencionados en el citado Anexo II del pliego de prescripciones técnicas particulares, éstos serán

fijados libremente por el contratista.

Jaki eta edarien prezioak jendaurrean jarriko dira prezioen-zerrendan. Prezioen zerrenda horrek eta gainerako oharrek Pasaiako Udalaren Euskararen erabileraren Ordenantza bete beharko dute.

Los precios de las consumiciones figurarán expuestos al público en la correspondiente lista de precios. Dicho listado de precios como otras publicaciones tendrán que cumplir la Ordenanza reguladora del Uso del Euskara del Ayuntamiento de Pasaia.

2.9.- Esleipendunaren ardura izango da edaritegia beharrezko material eta tresneriaz hornitzea.

2.9.- Será de cuenta del adjudicatario proveer el ambigú del material, menaje y utensilios necesarios.

Esleipendunaren kontura eta ardurapean izango dira taberna eta sukaldea kudeatzeko behar den material eta ekipamendua erostea eta instalatzea. Udalak baldintza tekniko berezien agiri honen I. eranskinean jasotzen den inbentarioan adierazitako tresnak eta ekipamenduak bakarrik hornituko ditu, beraz, Udalak ez du bere gain hartuko eranskinean jasota ez dauden material eta ekipamenduen erosketa.

Será de cuenta y cargo del adjudicatario la adquisición y en su caso instalación de todo aquel material y equipamiento necesario para la gestión del bar y cocina. El Ayuntamiento solo suministrará los útiles y enseres que constan en el inventario que se recoge en el Anexo I del pliego de prescripciones técnicas particulares, no siendo por tanto a cargo del Ayuntamiento la adquisición de los materiales o equipamientos no recogidos en el Anexo.

Esleipendunaren kontura izango da kontratuak dirauen bitartean tabernako eta sukaldeko materialak berriz erostea, hondatzen direnean, eta baita garbiketako tresna eta produktuak erostea ere, astearte eta asteazkenetako komunen garbiketakoak izan ezik.

Será de cuenta del adjudicatario/a la reposición y reparación del material de servicio del bar-cocina que se deteriore durante el período de vigencia del contrato, y asimismo los gastos por útiles y productos de limpieza, excepto lo relacionado con la limpieza de los aseos en martes y miércoles.

Kontratistaren kontura izango da taberna eta sukaldea kudeatzeko beharrezko materiala eta ekipamendua berriz erostea eta konpontzea kontratazioak dirauen bitartean hondatzen badira.

Será de cuenta del contratista la reposición y reparación del material y equipamiento necesario para la gestión del bar y cocina del servicio de bar que se deteriore durante el periodo de la contratación.

I. Eranskineko ekipamenduaren mantenu eta konponketari dagokionez, baita ere kontratistaren kontura izango da, betiere gastua ez bada unitateko 150,00 eurotik gorakoa. Gastua zenbateko hori baina handiagoa bada, udalaren kontura izango da.

En lo que respecta al mantenimiento y reparación del equipamiento relacionado en el Anexo I, será también por cuenta del contratista, siempre que los gastos no superen los 150,00 € por unidad. Si los gastos superan la citada cuantía, serán asumidos por el Ayuntamiento.

Halaber, kontratistak baldintza agiri honetako I eranskinean jasotzen diren urteko mantenu eta garbiketa lanak egin eta finantzatu beharko ditu.

Además, el contratista deberá realizar y financiar los mantenimientos anuales y limpiezas a que se refiere el anexo I del presente pliego.

Kontratistak ezingo du inolako obrarik egin, ezta konponketarik ere, Udalaren berariazko eta idatzizko baimena izan ezean.

El contratista no podrá realizar obras de ninguna clase, aún de mera reparación, sin el permiso expreso y escrito del Ayuntamiento.

Desmuntatu ezin diren obrak Udalaren jabetzakoak izango dira dohainik kontratuaren bukaeran, eta udalak ez du ezer ordaindu beharko.

Las obras que no sean susceptibles de desmontaje quedarán bajo la propiedad del Ayuntamiento gratuitamente al término de la contrata, sin que éste deba abonar importe alguno por las mismas.

Halaber, kontratistak ezingo du txanpon- edo joko-akinarik jarri, ez eta inolako saltzeko makinarik ere, aurretik Udalak horretarako baimena ematen ez

Asimismo, el contratista no podrá colocar máquinas tragaperras o de juego, y máquinas expendedoras de cualquier clase sin previa autorización del

badio.

2.10. Kontratuak dirauen bitartean esleipendunak zerbitzu arduratsua eman beharko du tabernan eta sukaldean, atezaintzan, eta instalazioen garbiketa-lanetan, eta une oro Udalak ematen dituen arauak bete beharko ditu. Halaber, establezimendu publikoetarako ematen diren osasun- eta elikadura-arloko xedapenak bete beharko ditu.

2.11. Udalak kontrol- eta zaintza-lana egin dezake hauei dagokienez: lokalaren funtzionamendua, barneko ordena, irekitzeko eta ixteko ordutegia, lokal eta zerbitzuen garbitasun- eta osasun-baldintzak, taberna eta sukaldearenak barne. Horretarako, jubilatuen etxeko leku eta instalazioetarako sarbidea izango du, eta eginkizun hori jubilatuen etxeko zuzendaritza batzordeari eskuordetu ahal izango dio.

2.12. Esleipendunak bere gain hartuko ditu eragiten dioten zerga-betebeharrak edo aurreikuspen eta gizarte segurantzako betebeharrak.

2.13.- Pasaiako Udalak lokala, bertako instalazioak eta altzariak aseguratu behar ditu, egoki iritzitako kopuruekin.

2.14.- Udalari ahalmena ematen zaio kontratua salatzeko eta indarrik gabe uzteko, agiri honetan ezarritako baldintzaren bat betetzen ez bada. Hori gertatuz gero, esleipendunak behin betiko bermea galduko du.

2.15.- Halaber, edozein unetan eska dezake kontratutik eratorritako betebehar ekonomikoen ordainketetan egunean egotea, eta, aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, zor diren kopuruak premiamenduzko bidearen bitartez eta dagozkion errekarguekin kobratu ahal izango ditu.

2.16.- Kontratuaren epea bukatzen denean, kontratua iraungiko da, eta esleipendunak libre, hutsik eta udalaren esku utzi beharko ditu lokala eta kontratuaren barne sartzen diren gainerako ondasunak.

2.17.- Kontratistak urtarril guztietan aurkeztu beharko ditu aurreko urte naturaleko datu ekonomikoak, eta adierazi behar du zer sarrera eta gastu izan den zerbitzuaren kudeaketari

Ayuntamiento.

2.10. La adjudicataria vendrá obligada, durante el tiempo que dure el contrato, a mantener un esmerado servicio tanto en lo que se refiere al del bar y cocina como al de Conserjería y limpieza de las instalaciones, atendiendo en todo momento las normas que al respecto dé el Ayuntamiento. Asimismo, deberá cumplir cuantas normas con disposiciones de carácter sanitario-alimentario se dicten para establecimientos públicos.

2.11. El Ayuntamiento podrá realizar la función de vigilancia y control respecto al funcionamiento del local, su orden interior, horario de apertura y cierre, limpieza y condiciones sanitarias de locales y servicios, incluidos los de departamentos de bar y cocina. Para ello tendrá libre acceso a todos los lugares e instalaciones del Hogar, pudiendo delegar en la Directiva del Hogar de Jubilados/as dicha función.

2.12. El/la adjudicatario/a será responsable de las obligaciones fiscales o de previsión y seguridad social que le pudieran afectar.

2.13.- El Ayuntamiento de Pasaia viene obligado a asegurar el local, sus instalaciones y mobiliario por las cantidades que considere convenientes.

2.14.- Se faculta al Ayuntamiento para denunciar el contrato, dejándolo sin efecto y con pérdida de la fianza definitiva, por incumplimiento de cualquiera de las condiciones establecidas en este Pliego.

2.15.- Asimismo, podrá exigir, en cualquier momento, estar al corriente en el pago de cuantas obligaciones de carácter económico se deriven del mismo, pudiendo, con independencia de lo dispuesto en el párrafo anterior, proceder al cobro de las que se adeuden por vía de apremio y con los recargos pertinentes.

2.16.- El contrato se extinguirá al cumplirse el plazo por el que se otorga, quedando el/la adjudicatario/a obligado/a a abonar y dejar libres y vacíos a disposición del Ayuntamiento, al finalizar el expresado plazo, el local y los demás bienes objeto de la misma.

2.17.- El contratista deberá presentar dentro de cada mes de enero los datos económicos del año natural anterior, indicando los ingresos y gastos que se hayan producido en la gestión del servicio.

dagokionez.

2.18.- Agiri honetan esleipendunaren eginkizun gisa ezartzen diren garbiketa-lanetarako produktuak eta materialak esleipendunaren kontura erosiko dira; Udalak ez du ezer ordainduko kontzeptu horrengatik.

2.18.- La adquisición y financiación de los productos y material para la limpieza que en los pliegos se establece como función del contratista será íntegramente de cuenta y cargo del mismo, sin que el Ayuntamiento deba abonar cantidad alguna en este concepto.

2.19.-INGURUMEN-KLAUSULAK

Jardunbide jasangarriak sustatzeko eta jarduera gauzatzearen ondoriozko ingurumen-inpaktua minimizatzeko, ingurumen-irizpide hauek ezartzen dira:

2.19.- CLAUSULAS MEDIOAMBIENTALES

Con el fin de promover prácticas sostenibles y minimizar el impacto ambiental derivado del desarrollo de la actividad se establecen los siguientes criterios ambientales:

ENBALATZEKO IRIZPIDEAK

Ahal dela, txorrotako ura zerbitzatuko da pitxarretan, ontziratu gabeko ura.

Edari hotzak (freskagarriak, zukuak, ardoa...) beirazko ontzietan zerbitzatuko dira.

CRITERIOS DE EMBALAJE

El agua se servirá preferiblemente del grifo en jarras y no envasada.

Las bebidas frías (refrescos, zumos, vino…) se servirá en envases de vidrio.

ONTZITERIA, MAHAI-TRESNERIA ETA MAHAI-ZAPIETARAKO IRIZPIDEAK

Ontziteria, beirateria eta mahai-tresneria berrerabilgarriak erabiliko dira (kristalezkoak, portzelanazkoak edo metalezkoak). Debekatuta dago erabilera bakarreko plastikozko tresnak erabiltzea.

CRITERIOS PARA LA VAJILLA, CUBERTERÍA Y MANTELERÍA

La vajilla, cristalería y cubertería usadas serán reutilizables (cristal, porcelana, metal). Se prohíbe el uso utensilios de plástico de un solo uso.

Kasu berezietan (jaiak edo bestelako ekitaldiak) erabilera bakarreko ontziteria erabili behar bada, ontziteria biodegradagarria edo konpostagarria izan beharko da.

En caso de que en ocasiones especiales (fiestas u otros eventos) sea necesario emplear vajilla de un sólo uso, ésta deberá ser biodegradable o compostable.

Mahai-zapiak eta ezpainzapiak gutxienez paper birziklatuzkoak izango dira.

La mantelería y servilletas serán como mínimo de papel reciclado.

Oihalezkoak izatea baloratuko da.

Se valorará que sean de tela.

HONDAKINAK SORTZEAREKIN LOTUTAKO IRIZPIDEAK

- Kontratistak behar bezala bereizi beharko ditu jardueraren ondorioz sortutako hondakinak, frakzio hauetan: biohondakinak, papera eta kartoia, ontzi arinak, beira eta gainerakoak.

- Paper eta kartoi frakzioa eta ontzi arinen frakzioa kudeatzeko, San Markos Mankomunitateak ematen duen merkataritza-bilketako zerbitzua erabili beharko da, eta, horretarako, dagokion eskaera egin beharko zaio aipatutako erakundeari.

CRITERIOS RELACIONADOS CON LA GENERACIÓN DE RESIDUOS

- El/la contratista deberá separar correctamente los residuos generados como fruto de su actividad en las siguientes fracciones: biorresiduos, papel y cartón, envases ligeros, vidrio y resto.

- Para la gestión de las fracciones de papel y cartón y envases ligeros, deberá hacerse uso del servicio de recogida comercial que proporciona la Mancomunidad de San Marcos, para lo que deberá formalizarse la correspondientes solicitud ante el citado organismo.

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

- Olio erabilia kontratistak kudeatuko du, dagokion enpresa kudeatzailearen bidez, eta alderdi hori egiaztatzen duen dokumentazioa gorde beharko du. Udalak egokitzat jotzen duenean eskatu ahal izango du dokumentazio hori.

IRIZPIDE ENERGETIKOAK

Esleipendunak energia-baliabideak zentzuz erabiliko ditu, eta energia aurreztea sustatuko du.

ORDUTEGIA

1. 1. KASUA (ostalaritza-jarduerak egiten diren udal-lokalak, lokalen barruan)
Jarduera 2. taldekoa da, 17/2019 Dekretuaren arabera, eta, beraz, horien ordutegia Dekretu horren 32. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa da.

ZARATA SORTZEAREKIN LOTUTAKO IRIZPIDEAK

Uneoro bete beharko dira etxebizitzetara transmititu daitezkeen gehieneko zarata-mailak, 213/2012 Dekretuaren I. eranskineko G eta H tauletan ezarritakoaren arabera.

Jarduerak sortutako zarata-mailarekin lotutako kexak badaude eta lokalaren airetiko zaratarekiko isolamendua, inpaktu-zaratarekiko isolamendua eta/edo inguruko etxebizitzetara igorritako zarata-mailak neurtu behar badira, kontratistaren kontura izango dira neurketa horiek.

Lokalaren isolamendu akustikoaren mailak horretarako aukera ematen badu, musika-ekipamendua erabili ahal izango da, betiere mugatzaile bat badu, 17/2019 Dekretuaren 16. Artikuluan ezartzen den moduan, honako ezaugarri hauek dituena:

- Zortzidun herenaren frekuentzia-bandatan mugatzeko gaitasuna izan beharko du. Zortzidun hereneko iragazkiek IEC 61260 eta EKT bete behar dituzte.
- Soinu-kate osoan parte hartu beharko du.
- Barne-egiaztapeneko sistema bat izan beharko du, saio bakoitzaren hasieran soinu-instalazioan gerta daitezkeen manipulazioak, aldaketak edo matxurak hautemateko.
- Mikrofono bat izan beharko du, IEC 61672-1

- La gestión del aceite usado correrá a cargo del/la contratista y se realizará a través de la empresa gestora correspondiente, debiendo conservar la documentación que acredite este aspecto. El Ayuntamiento podrá solicitar dicha documentación cuando lo estime oportuno.

CRITERIOS ENERGÉTICOS

El/La adjudicataria realizará un uso razonable de los recursos energéticos, fomentando el ahorro de energía.

HORARIO

1. CASO 1 (locales municipales en donde se realicen actividades hosteleras, en el interior de los locales)
La actividad es del Grupo 2 según el Decreto 17/2019, por lo que el horario es el establecido en el art. 32 y siguientes de dicho Decreto.

CRITERIOS ASOCIADOS A LA GENERACIÓN DE RUIDO

En todo momento deben cumplirse los niveles máximos transmisibles a viviendas establecidos en las tablas G y H del Anexo I del Decreto 213/2012.

En caso de que se produzcan quejas asociadas al nivel de ruido producido por la actividad y sea necesario realizar mediciones de aislamiento a ruido aéreo del local, aislamiento al ruido de impacto y/o niveles de ruido transmitidos a viviendas colindantes, éstas correrán a cargo del/la contratista.

En caso de que el nivel de aislamiento acústico del local así lo permita, se permitirá el uso de equipo de música, siempre y cuando éste disponga de un limitador tal y como exige el art. 16 del Decreto 17/2019 y que cumpla las siguientes características:

- Deberá tener capacidad de limitar en bandas de frecuencia en 1/3 de octava. Los filtros de 1/3 octava deben cumplir con IEC 61260 y CTE.
- Deberá intervenir en la totalidad de la cadena de sonido.
- Deberá disponer de un sistema de verificación interno que permita detectar al inicio de cada sesión posibles manipulaciones, modificaciones o averías en la instalación sonora.
- Deberá disponer de un micrófono, con precisión Tipo 1 según norma IEC 61672-1 y

arauaren araberako 1. motako doitasunarekin, eta erregistro sonografiko bat, saio bakoitzean jardueran egon diren soinu-mailak biltegiratzeko, zortzidun baten herenean neurtutako espektroaren balioak barne. Datuak gordetzeko gutxieneko epea sei hilabetekoa izango da, gehienez ere 10 minutuz erregistratzeko.

- Mugatzaile-kontrolatzailera sartzeko sistema bat egongo da, hasierako konfigurazioa aldatzea eragotziko duten gakoen bidez, edo, aldatuz gero, ekipoaren barne-memorian erregistratuta geratuko dena.
- Ikuskapen-sistema bat eduki beharko du, udal-zerbitzu teknikoek biltegiratutako datuak eskuratu ahal izan ditzaten, aztertu eta ebaluatu ahal izateko.
- Udalak hala eskatzen badu, jardueraren titularrak zerbitzu iraunkor baten kostuak formalizatu eta ordaindu beharko ditu, lokalean dauden soinu-mailen eta barne-memorian gordetako datuen urruneko transmisio-sistema bat denbora errealean izateko eta, hala eskatuz gero, Udal Zerbitzu Teknikoek modu telematikoan urrunetik kontsultatzeko aukera emateko.
- Bistaratze-pantaila bat eduki beharko du, erabiltzaileak une oro eta modu argian ikus dezan soinu-mugatzailearen mikrofonoa neurtzen ari den soinu-maila.
- Airetiko zarataren aurkako isolamendu-kurba murriztaileena zuzenean programatzea ahalbidetu beharko du, gehien kaltetutako etxebizitzarekiko, zortziren baten hereneko erresoluzioarekin.
- Muga etxebizitzarentzat kalkulatutako soinu-mailara egokitzea ahalbidetu beharko du, jardueraren barruan neurtutako espektroaren eta mugatzailean programatutako isolamendu-kurbaren arabera. Etxebizitzaren barrualderako kalkulatutako soinu-mailen erregistroak gordeko dira.

Mugatzailea erostea eta jartzea kontratistaren kontura izango da.

Soinu-potentziaren mugatzaile-kontrolatzaile bat instalatu edo birkonfiguratu ondoren, gutxienez honako eduki hau duen txosten bat aurkeztu beharko da:

- Mugatzaile-kontrolatzailea instalatu den unean dagoen musika-instalazioa, bere osagaien markak, modeloa eta serie-zenbakia adierazita.
- Musika-instalazioaren eskema, osagai bakoitzaren konexio-ordena adierazita, mugatzaile-kontrolatzailea barne.

de un registro sonográfico para el almacenamiento de los niveles sonoros que han existido en la actividad en cada una de sus sesiones, incluyen los valores del espectro medido en 1/3 de octava. El periodo mínimo de almacenamiento de datos será de seis meses, para un tiempo de registro de 10 minutos máximo.

- Deberá existir un sistema de acceso al limitador-controlador mediante claves que impida la modificación de la configuración inicial, o que, si ésta se realiza, quede registrado en la memoria interna del equipo.
- Deberá disponer de un sistema de inspección que permita a los servicios técnicos municipales la adquisición de los datos almacenados para que puedan ser analizados y evaluados.
- En caso de que el Ayuntamiento así lo solicite, el titular de la actividad deberá formalizar y sufragar los costes de un servicio permanente que le permita disponer de un sistema de transmisión remota en tiempo real de los niveles sonoros existentes en el local, y de los datos almacenados en su memoria interna, y permitir que puedan ser consultados remotamente por los Servicios Técnicos Municipales de forma telemática. en caso de que sea requerido.
- Deberá disponer de una pantalla de visualización donde el usuario pueda ver en todo momento, y de forma clara, el nivel sonoro que está midiendo el micrófono del limitador registrador sonoro.
- Deberá permitir programar directamente la curva de aislamiento a ruido aéreo más restrictiva con respecto a la vivienda más afectada con resolución de 1/3 octava.
- Deberá calcular y permitir que la limitación se ajuste al nivel sonoro calculado para la vivienda en función del espectro medido en el interior de la actividad y la curva de aislamiento programada en el limitador. Se guardarán los registros de los niveles sonoros calculados para el interior de la vivienda.

La adquisición y colocación del limitador correrá a cargo del/la contratista.

Tras la instalación o reconfiguración de un limitador-controlador de potencia sonora, deberá presentarse un informe con el siguiente contenido mínimo:

- Instalación musical existente en el momento en que se instaló el limitador-controlador, con indicación de marcas, modelo y número de serie de sus componentes.
- Esquema de la instalación musical con indicación del orden de conexión de cada uno de los componentes, incluido el limitador-controlador.

- Lokalaren planoa, bozgorailuen kokapena eta mugatzaile-kontrolatzailearen mikrofonoaren posizioa adierazita.
- Musika-instalazioaren soinu-igorpenaren maila maximoak, bozgorailuetatik 2 metrora, behin mugagailua instalatu ondoren.
- Esparru mugakideetan eta kanpoaldean aplikazio-mugak betetzen direla egiaztatzeko in situ neurriekin egindako saiakuntza-txostena.
- Anplifikadoreen eta bozgorailuen potentzia wattetan.
- Airetiko zarataren aurkako isolamendu-kurba, mugatzailean programatua, zortziren baten hereneko maiztasun-bandetan.

45. artikuluan adierazitako gutxieneko ezaugarriak dituen potentzia akustikoaren mugatzaile/kontrolatzaile bat instalatu ondoren, jardueraren titularrak mantentze-zerbitzu bat formalizatuko du instalaziotik hilabeteko epean. Zerbitzu horrek honako hauek ahalbidetuko ditu:

- Ekipoa matxuratuz gero, matxura detektatu eta astebetetik beherako epean konpontzea edo ordezkatzea ziurtatzea.
- Mugatzaileak behar bezala funtzionatzen duela ziurtatzeko, jardueraren titularrak etengabeko mantentze-zerbitzu baten kostua formalizatu eta ordaindu beharko du, transmisio telematikoa ahalbidetzeko, udal-zerbitzu teknikoak mugatzailera urrutitik sartu ahal izan daitezen eta jardueran dauden soinu-mailak eta gerta daitezkeen gorabeherak denbora errealean ikusi ahal izan ditzaten.
- Instalazioa egiaztatzeko urteko ziurtagiria, mikrofonoaren eta mugatzailearen kalibrazioa eta haren berrikuspen orokorra barne.

Kontratua gauzatzen den bitartean:

- Administrazioak ikuskapenak edo auditoretzak egin ahal izango ditu aldian behin, ingurumen-klausulak betetzen direla egiaztatzeko.

- Esleipenduna behartuta egongo da laguntza osoa ematera, eskatutako dokumentazioa emanez (hala nola fakturak, fitxa teknikoak edo erabilitako produktu edo ekipamenduen

- Plano del local con indicación de la ubicación de los altavoces y la posición del micrófono del limitador-controlador.
- Máximos niveles de emisión sonora de la instalación musical, a 2 metros de distancia de los altavoces, una vez instalado el limitador.
- Informe de ensayo con medidas “in situ” de verificación de cumplimiento de los niveles límite de aplicación en los recintos colindantes y en el exterior.
- Potencia en Watios de amplificadores y altavoces.
- Curva de aislamiento a ruido aéreo programada en el limitador en bandas de frecuencia de 1/3 octava.

Una vez instalado un limitador-controlador de potencia acústica con las características mínimas indicadas en el Artículo 45, en el plazo máximo de un mes desde la instalación, el titular de la actividad formalizará un servicio de mantenimiento que permita:

- Asegurar, en caso de avería del equipo, su reparación o sustitución en un plazo inferior a una semana desde la detección de la avería.
- A fin de asegurar el correcto funcionamiento del limitador, el titular de la actividad deberá formalizar y sufragar el coste de un servicio de mantenimiento permanente que le permita la transmisión telemática de forma que los Servicios Técnicos Municipales puedan acceder de forma remota al limitador y visualizar en tiempo real los niveles sonoros existentes en la actividad y las posibles incidencias.
- Certificado anual de comprobación de la instalación, incluyendo la calibración del micrófono y del limitador, así como la revisión general del mismo.

Durante la ejecución del contrato:

- La Administración podrá realizar inspecciones o auditorías periódicas para verificar el cumplimiento de las cláusulas medioambientales.

- El adjudicatario estará obligado a colaborar plenamente, proporcionando la documentación requerida (como facturas, fichas técnicas o certificaciones de los productos y/o equipos utilizados, etc.) y permitiendo las inspecciones in situ.

ziurtagiriak, etab.). eta *in situ* ikuskapenak baimenduz.

- Gainera, Administrazioari jakinarazi beharko dio zerbitzurako erabilitako produktu, ekipo edo makinetan egindako aldaketa oro.

- Deberá, además, informar a la Administración de cualquier cambio en los productos, equipos y/o maquinaria utilizados para el servicio.

I. ERANSKINA

SANPEDROKO JUBILATUEN ETXEKO TABERNAKO TRESNERIAREN ZERRENDA

- SUPERLINE 45 KANPAI ZURIA
- BITROZERAMIKA
- DFS 24610 ONTZI-GARBIGAILUA
- MIKROUHIN-LABEA 700 W
- BOTTON FREESZER NFL 340 HOZKAILUA

ANEXO I

LISTADO DE UTILES Y ENSERES DEL AMBIGÚ DE JUBILADOS DE SAN PEDRO

- CAMPANA SUPERLINE 45 BLANCA
- VITROCERAMICA
- LAVAVAJILLAS DFS 24610
- MICROONDAS 700 W.
- REFRIGERADOR BOTTON FREESZER NFL 340

IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KUDEAKETA
kudeaketa@pasaia.net

II.ERANSKINA / ANEXO II

Prezioak 2025 / Precios 2025

EDARIAK / BEBIDAS	Prezioa
ARDO-TXIKITO KORRIENTEA / TXIKITO DE VINO CORRIENTE	0,75
URTEKO ARDOA / TINTO DEL AÑO	1,55
ARDO BEREZIAK / VINOS ESPECIALES	1,60
SAGAR-TXIKITOA / TXIKITO DE MANZANA	0,80
MOSTO ERDIA / MEDIO MOSTO	0,85
MOSTO OSOA / MOSTO ENTERO	1,20
MOSKATELA	1,45
UR-BOTILATXOA / BOTELLIN DE AGUA	1,05
SAGARDO-TXIKITOA / TXIKITO DE SIDRA	0,85
TXAKOLINA	1,70

FRESKAGARRIAK / REFRESCOS

KAINA / CAÑA	1,95
ZURITOA / ZURITOS	1,20
GARAGARDO-BOTILATXOA / BOTELLIN DE CERVEZA	1,80
ALKOHOLIK GABEKO GARAGARDOA / CERVEZA SIN ALCOHOL	1,90
FRESKAGARRIAK / REFRESCOS	1,80
ZUMOAK / ZUMOS	1,80
BATIDOAK / BATIDOS	1,80

KAFEAK / CAFES

KAFE HUTSA / CAFÉ SOLO	1,20
EBAKIA / CAFÉ CORTADO	1,30
KAFESNEA / CAFÉ CON LECHE	1,40
BASO ESNE / VASO DE LECHE	1,20
INFUSIOAK / INFUSIONES	1,20
KAFEA TTANTTAREKIN / CAFÉ CON CHORRO	1,75
PATTAR-KAFEA / CARAJILLO	2,40
KATILU BAT TXOKOLATE / TAZA DE CHOCOLATE	1,65

ALKOHOLDUN EDARIAK / ALCOHOLES

ANISA / ANIS	2,85
BRANDIA / BRANDY	2,85
GINEBRA	2,85
WHISKYA / WHISKY	3,75
PATXARANA / PACHARAN	2,85
LIKOREA / LICOR	2,85
BAILEY'S	3,50
RONA / RON	2,85
VODKA	2,85
CINZANO BITTERRA / BITTER CINZANO	1,90
BITTER ALKOHOLGABE / BITTER SIN ALCOHOL	1,80
BERMUTA / VERMOUTH	1,90
BERMUT ERDIA / MEDIO VERMOUTH	1,45
WHISKY TXUPITOA / CHUPITO DE WHISKY	2,85
BELAR TXUPITOA / CHUPITO DE HIERBAS	1,65
TIO PEPE	1,90

TXANPAN BOTILA / BOTELLA CHAMPAN	7,00
TXANPAN-KOPA / COPA DE CHAMPAN	1,85
SAGARDO-BOTILA / BOTELLA DE SIDRA	3,50
MARTINI CAMPARIREKIN / MARTINI CON CAMPARI	2,35
KONBINATUAK / COMBINADOS	5,85
KALIMOTXOA / CALIMOTXO	2,65

PLATERTXOAK / RACIONES

PINTXO HOTZ ETA BEROAK / BANDERILLAS FRIAS Y CALIENTES	1,80
SALDA / CALDO	1,20
OLIBA PLATERTXOA / RACIÓN DE ACEITUNAS	1,65
MENUA MENÚ	10,65

OGITARTEKOAK / BOCADILLOS	4,50